



#### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Isiltasunaren ildoetan**

Egilea / Autora: **Amaia Iturbide**

Saila / Colección: Poesia, 44

ISBN / EAN: 978-84-9109-652-8

Salneurria / Precio: 10 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 96

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 13 x 20,5 cm

Materia: Poesia

#### Lana / La obra

Batetik, hitza sarritan higituta edo manipulatuta dagoelako eta, bestetik, hitza batzuetan nahikoa ez delako idatzi dut poema liburu hau, hori dela-eta hitzen isiltasuna entzuten aritu naiz eta isiltasunez betetako egoerei heldu diet. Horretarako irudi, kolore eta sinboloen bidea egokia suertatu zait. Zenbait bertso idazteko garaian bizi-esperientzietatik abiatu naiz. Denborak eta oroimenak utzitako aztarnak zein arrakalak ere aurki daitezke liburuan zehar.

Hor dago bihotza dike lehorrean,  
gontzak zuztarretik ateratako atea,  
ozta-ozta arnasa hartzen duen harri-lubeta.  
Kontainer margotua ere badela esango luke baten batek,  
uretan behera doan zerbait  
enbalatzeko paperean bilduta.  
Begirada itsua da frontoi bateko paretaren kontra,  
hainbeste dragatzeagatik eta hainbeste zubi zeharkatzeagatik  
jadanik hanka nekatuak dauzkana.  
Nahiz eta azkenetan egon,  
kostazainarena egiten dihardu.

